



Gorka Bereziartua Mitxelena

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Pablo Berasteguik ez daki euskaraz, *but who cares?*

AURKEZTU DUTE Pablo Berastegui Donostia 2016ko zuzendari orokorra eta mundu guztiak sine-tsi duenean hiriburu kulturalaren kontuekin lasaitasun pixka bat izango genuela, datu inportante bat hasi da zabaltzen sare soziale-tan.

Albisteak hainbat twitterlari-ren erantzuna ekarri du:

@JosebaAlvarez: “Aho batez izendatu den Donostia 2016ko zuzendari berria Pablo Berasteguik ez daki euskaraz eta, beraz, ez du euskal kultura zuzenean ezagutzen. Lotsal!”.

@Kaltzakorta: “Donostia 2016ko zuzendariak euskaraz jakin ez, eta oraindik ere “egokie-na” bera dela dio Donostiako alkateak”.

@Umerez: “Aho bete hortz utzi nau Donostia 2016ko zuzendari berriak euskaraz ez dakielako jakiteak”.

@Batistezeiza: “Euskaraz ez dakien pertsona, @DSS2016-rako zuzendari berria. Ahobetez, eta udalaren oniritziarekin. *Toma Ya!*”.

@EiTBKultura: “Pablo Berastegui Donostia 2016ko zuzendari orokor berriak proiektuan konfiantza berreskuratu behar dela nabarmendu du bere aurkezpe-nean”.

Beraz, badugu istilua berriz ere: gaiaren larritasuna ikusirik, orain arte 2016ari markajea egi-ten aritu diren interes taldeek eta hedabideek lepora salto egingo diote Fundazioaren Patronatuari. Seguru.

Pentsatzekoa da, bere garaian Itziar Nogerasek ingelesez ez zekiela gorritz azpimarratu zuten gisa berean hasiko direla espantuka gure euskara maiteak ez duela-

ko bonberoen egoitza zaharreko *master and commander* berriaren mingainik probatuko.

Edo akaso ez. Akaso inporta duena ingelesez jakitea da eta *who cares* Berasteguiaren gaitasun lin-guistikotik faltaz. Lauzpabost eus-kaltzaleri *–fucking basque talibans–* baino ez zaie irudituko, dema-gun, blog batean lerro batzuk alferrik botatzeko moduko gaia.

Itziar Nogerasek ingelesez ez zekiela gorritz azpimarratu zuten gisa berean hasiko direla espantuka gure euskara maiteak ez duelako bonberoen egoitza zaharreko “master and commander” berriaren mingainik probatuko

Ondorengo erreakzioak

Sortu alderdiko bozeramaile Hasier Arraizek “akats” gisa defi-nitu du Berasteguik euskaraz ez jakitea.

Gaiaz galdetu diote Beraste-guiari berari eta *El Mundok* jaso duenez, zuzendari berriak adiera-zi du “eskuzabalak eta irekiak” izan behar dugula “Euskadi natu-raltasunez European egon dadin”.

Donostiako Udalak *El Diario Vasco*ri adierazi dionez, euskarak 2016ko proiektuaren ardatz iza-ten segituko du. Udalak gogora ekarri du kultur hiri-buruaren bulegoan langile guztiek dakite-la euskaraz, aholkula-riren batek salbu. ■



BERTSO BERRIAK

Eskoziaren gaztaka



Jon Maia Soria

♦

Doinua: Hamalau heriotzena.

Duela hiru urte zabaldu zen Gazta esanez: mundu bolak zati asko dauzka. Ez garela ardiak, ez dugu nahi bazka... eta hartuz geroztik artzainaren kasta “gaztaka” itxura hartzen ari da gatazka.

Eskoziarengan dago munduko begia baina gazta honek ere nola ilargia soilik bistatu arren argidun erdia badu beste erdi bat, beste aurpegia hemen falta duguna: Londres, alegia.

Eskoziaren herritarrek behar dute hauta Britainia Handiaren *In-a* edo *out-a* hautatzea da gako zer hauta da mauka orain ukapenean “europeizauta” jarraitu nahi duenak zailagoa dauka. ■

